**AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK ONARTZEN BAITA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.**

2025eko ekainaren 17ko Aginduaren bidez, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak agindu zuen Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egin eta onartzeko prozedurari hasiera emateko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 15.1 artikuluak honela dio: “Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik”.

Aipatutakoa kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuaren arabera, dekretu-proiektuaren testua idatzi ondoren, aldez aurreko onarpena eman beharko zaio, dagozkion izapideak egin aurretik, eta, beraz, honakoa

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Aldez aurretik onartzea Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuaren testua.

**Bigarrena.-** Araua egiteko prozeduraren jarraipena xedatzea, eta beharrezkoak diren

**ORDEN DEL VICEPRESIDENTE SEGUNDO DEL GOBIERNO Y CONSEJERO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO DE DECRETO DE MODIFICACIÓN DEL DECRETO DE ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL DEL DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO.**

Mediante Orden de 17 de junio de 2025, el Vicepresidente Segundo del Gobierno y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo ordenó el inicio del procedimiento para la elaboración y aprobación de un proyecto de Decreto de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, señala que “una vez redactados todos los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio”.

En virtud de lo señalado, una vez redactado el texto del proyecto de decreto, de acuerdo con la finalidad establecida en la Orden de inicio del procedimiento, procede su aprobación previa con anterioridad a los trámites pertinentes, por todo lo cual

**RESUELVO**

**Primero.-** Aprobar con carácter previo el texto del proyecto de decreto de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

**Segundo.-** Disponer la continuación del procedimiento de elaboración de la norma,



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez **egoitza elektronikoan** egiaztagarria.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T71X5-ETNV
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MIGUEL TORRES LORENZO | 2025/06/26 11:55:54

instrukzio-egintzak egin daitezela agintzea, bat etorriz prozedura hasteko 2025eko ekainaren 17ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoarekin.

ordenando la realización de los actos de instrucción necesarios, todo ello de conformidad con las premisas expresadas en la Orden de inicio de 17 de junio de 2025, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Vitoria-Gasteizen / En Vitoria-Gasteiz

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua
El vicepresidente segundo del Gobierno y consejero de Economía, Trabajo y Empleo

MIGUEL TORRES LORENZO

Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente

XX/2025 DEKRETUA, xxxaren xx(e)koa, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzekoa.

2024ko azaroaren 22an jarri zen indarrean 323/2024 Dekretua, azaroaren 5ekoa, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa, ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa betetzeko (Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena).

2025eko ekainaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 128/2025 Dekretua argitaratu da, ekainaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzekoa.

Egun berean argitaratu da 127/2025 Dekretua, ekainaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei beste batzuk gehitzeko, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan.

Ekainaren 17ko 128/2025 Dekretuaren 1. artikuluaren arabera, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2025eko maiatzaren 30ean hartutako erabakia onartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzekoa, ekainaren 17ko 511/2025 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan. Halaber, agintzen du errege-dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratu dadila, dekretu honen eranskin gisa.

Bestalde, 2. artikuluak xedatzen du eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita egongo direla aurrerantzean.

Aipatutako eranskin horri jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak zehazten dira, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak.

Horrenbestez, ezinbestekoa da Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 323/2024 Dekretua, azaroaren 5ekoa,egokitzea, sailak eginkizun berriak bere gain har ditzan. Hala, sailari Laneko eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzetako lurralde-ordezkarietarako eskuordetutako eskumenak aldatu behar dira.

Horren ondorioz, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, lehendakariak onetsi eta Gobernu Kontseiluak 2025eko XXaren XX(e)ko bilkuran aztertu eta onetsi ondoren,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. - Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18. artikuluko 2. apartatua aldatzea.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18. artikuluko 2. apartatuari w) letra aldatu eta x) letra erantsi zaio. Honela geldituko da idatzita:

“w) Atzerritarren lanerako hasierako baimenak eta sasoiko jardueretakoak kudeatzea, izapidetzea eta ebaztea, baita horien berritzeak eta aldaketak ere; jatorrian kontratatzeko kudeaketa kolektiboa gauzatzea eta gizarte eta lan errotzeko eta gizarte eta prestakuntza errotzeko ezohiko egoeretan esleitutako egitekoak.

x) Oro har, indarrean den antolamendu juridikoak esleitzen dizkien egiteko guztiak, eta espresuki eskuordetzen zaizkienak.”

AZKEN XEDAPENA. - Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko xxxxxxaren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

DECRETO XX/2025, de xx de xx, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

El 22 de noviembre de 2024 entró en vigor el Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo dando cumplimiento a lo establecido en la Disposición Final Primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Se ha publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 24 de junio de 2025, el Decreto 128/2025, de 17 de junio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco de traspaso de funciones y servicios en materia de ejecución de la legislación laboral del Estado sobre autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco.

El mismo día ha sido objeto de publicación el Decreto 127/2025, de 17 de junio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad del País Vasco de ampliación de funciones de la Administración del Estado traspasadas a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 895/2011, de 24 de junio, en materia de función pública inspectora de la inspección de trabajo y seguridad.

El Decreto 128/2025, de 17 de junio, dispone en su artículo 1 que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma de 30 de mayo de 2025 de traspaso de funciones y servicios en materia de ejecución de la legislación laboral del Estado sobre autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco, en los términos establecidos por el Real Decreto 511/2025, de 17 de junio, ordenando la publicación íntegra del citado Real Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco como anexo al presente Decreto

Junto a lo anterior, en el artículo 2 se dispone que las funciones y servicios transferidos quedan adscritos al Departamento Economía, Trabajo y Empleo.

En virtud del citado anexo, se determinan las funciones y servicios que son transferidos a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ejecución de la legislación laboral del Estado sobre autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco.

Por lo tanto, se hace necesario adecuar el vigente Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo a la asunción de nuevas funciones por parte del departamento. Para ello, se precisa modificar el elenco de atribuciones que éste recoge para los delegados y delegadas territoriales de las Delegaciones Territoriales de Trabajo y Seguridad Social.

En su virtud, a propuesta del vicepresidente segundo del Gobierno y consejero de Economía, Trabajo y Empleo, previa aprobación del lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día XX de XX de 2025,

DISPONGO:

Artículo único. – Modificación del apartado 2 del artículo 18 del Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

Se modifica la letra w) y se adiciona una letra x) al apartado 2 del artículo 18, del Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, con la siguiente redacción:

“w) Gestionar, tramitar y resolver las autorizaciones iniciales de trabajo y para actividad de temporada de las personas extranjeras, sus renovaciones y modificaciones; así como la ejecución de la gestión colectiva de las contrataciones en origen y la ejecución de las funciones atribuidas en las situaciones excepcionales de arraigo sociolaboral y socioformativo.

x) En general, cuantas funciones les atribuya el ordenamiento jurídico vigente y las que expresamente se les deleguen”.

DISPOSICIÓN FINAL. - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a XX de XXXXXXX de 2025.

El lehendakari,
IMANOL PRADALES GIL.

El vicepresidente segundo del Gobierno y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo,
MIGUEL TORRES LORENZO.